

2012 IRAILA / 113. ALEA

Kaixo

urretxu !

5. orrian

GRABAN EL DOCUMENTAL «LURRA, GARIA, OGIA» QUE RECREA EL PROCESO DE HACER PAN COMO ANTAÑO

Habr  una exposici n de herramientas antiguas

8. orrian

FESTETAKO SOKATIRA LEHIAK 40 URTE

Angel Errazuk garai bateko kontuak gogoratu dizkigu

10. orrian

LA OLIMPIADA DE LA TXALAPARTA

Como cada cuatro a os, se celebra el Txalaparta Eguna

2. orrian

LIZEOKO KANTXA, BERRITUTA ETA DENON ESKURA

Udalak herritarren

eskaerari erantzun dio

Kaixo urretxu !

Urretxuko Udal Aldizkaria



Herritarren eskaerari erantzun dio Udalak

Abuztuan zehar Lizeoko kantxa konpondu da

Azken hilabetetan herritarren artean sustatutako partehartze prozesuan sortutako zenbait eskaerei erantzuten hasi da Udala, egoera ekonomikoak horretarako aukera eman dion unean. Horren adibide garbia izan da Lizeoko kanpoko kirol instalazioen lurra konpondu eta margotzea.

Auzoko bizilagunen eskaera izateaz gain, herritar askorentzako bilgune eta aisialdirako topagune ere izaten da Lizeoko parkea. Kirolaz gain, urtean zehar ekimen desberdinetarako erabiltzen da kokatuta dagoen puntu estrategikoa dela eta: bazkariak, azoka ekologikoa, haur jolasak, udaleku irekiak...

Kontutan izan behar dugu gainera, joan den apirilean udal ordezkari eta Lizeoko ikasleen ordezkariekin egindako bileran jasotako proposamenen artean kantxa konpontzeko beharra ere agertu zutela ikasleek.

Urtea aurrera joan ahala, Udal aurrekontuetan egindako errebisioak horrelako inbertsio bat egiteko aukera eman zuen eta abuztuko opor garaia aprobetxatu zen lan hau egiteko.

Horrelakoek argi uzten dute herritarren parte-hartzea aberasgarri izan dela aurtengo udal inbertsioak –herri azpiegitura txikiei dagokionez– diseinatzerakoan.

INBERTSIOAREN AURREKONTUA

Asfaltoa: 19.090 € Pintura: 984,96 €

ARLOA

Hirigintza, obra eta zerbitzuak

ESLEIPEN DATA

2012-06-25

ESLEITUTAKO ENPRESA

Asfaltos Urretxu S.L.

Kaixo *urretxu* !

2012 IRAILA / 113. ALEA

Ale honetako laguntzaileak: Iñaki Bastarrika, Jose Luis Garmendia, Josemi Lasa, Xabier Lasa, Angel Errazu, Ibon Garmendia, Unai Badiola eta Oihane Zabaleta.

Argazkiak: José Luis Garmendia, Angel Errazu, Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa, udal artxiboa eta Ur Artola

Lege Gordailua: SS/678/93

Konposaketa eta diseinua: Ur Artola Probanza

Koordinatzailea: Jon Ormazabal

Inprimaketa: ANTZA **Tirada:** 3.300 Ale

KAIXOk ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Ez bazara Urretxun bizi eta KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoan.

Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net.

Ratones y roedores

Se anima a los vecinos que detecten cualquier incidencia en ese sentido a que den parte en el Ayuntamiento

Aún se desconocen los motivos exactos, –se apunta a las condiciones meteorológicas, a la falta de comida o a los movimientos de tierras en Deskarga como posibles causas– pero lo cierto es que las incidencias a causa de los roedores han aumentado en este 2012, incluso en zonas rurales alejadas del casco urbano.

El Ayuntamiento tiene adjudicado este servicio a la empresa Irati, encargada de realizar las actuaciones pertinentes en cuanto se detecta la presencia de roedores. Ante cualquier incidencia, Irati es la encargada de identificar los agujeros por donde salen, introducir el veneno y sellar los mismos. Esto es lo que se ha venido haciendo en las últimas semanas en las zonas donde más roedores se han detectado –Bidegorri, Madaya, Grupo

Santa Bárbara– por lo que se anima a los ciudadanos a dar cuenta de cualquier problema que detecten. Del mismo modo, cualquier vecino afectado puede acudir a los Municipales a recoger sus saquitos de veneno. Allí se le tomarán los datos para poder realizar una estimación de la población de roedores.

Asimismo, después de que desde las empresas colindantes a Sarralde advirtieran de que la presencia de ratones en la zona había llegado a ser insoportable, se ha realizado una actuación especial. Con un presupuesto de 500 euros, se ha diseñado un plan dividido en tres fases en los que se han colocado ceños y veneno en la zona. En breve se evaluará si la actuación es suficiente en una superficie tan extensa.

Urretxuko balioak: gezurra eta ezinikusia

Iñaki Bastarrika Izagirre

“Urretxuko balioak” liburua-ren edizio-arduraduna

Urretxuko Udalak “Urretxuko balioak” ize-neko liburua argitaratu du aurten (2012), udalak berak emandako beka baten bidez

idatzitako liburua hain zuzen ere. Liburu horretan lantzen dira Urretxuko herritarrek, batik bat talde edo kolektiboek, dituzten balioak edo baloreak, hau da haiek zertan sinisten duten edo zer asmo eta helburu duten.

Liburu honi, udalean ordezkari-tza daukan alderdi politiko batek kritika gogorra egin dio, eta lau haizetara zabaldu du mezu ez-

korra, laburtuz hauxe: liburua oso txarra da eta dirutza kostatu da.

Egindako balorazio hau guztiz bidegabea, desegokia, eta egin den tonuagatik ankerra ere izan delakoan nago. Neu naiz liburu horren edizioaz arduratu dena (Urretxuko kultur etxetik hala eskatuta), eta egileak egindako testua orraztu, txukundu eta zuzendu duena, zuzentzaile profesional batzuen laguntzaz. Hiru bat hilabeteko lan saiatua izan da eta liburu bat egitea lanbidea denez, fundizioan edo ile-apaindegian lan egitea bezalaxe, mila seihun eta berrogeita bi euro (1642 €, bez barne) kobratu ditut, udalari egindako faktura bakarrean. Liburu hau egiteko ilustratzaile on bat hartu dugu eta hark egin ditu liburu barrurako ilustrazioak, azaleko diseinua eta barruko maketazioa. Liburuaren kosturik handiena inprimategiak eraman du, izan ere, paper ona erabili dugu eta liburuaren azalak gogorrek aukeratu ditugu eta gogorrek izateak liburua edertu eta garestitu egiten du. Jaun-andreak: liburu bat ongi egiteak lan handia eta kostua du. Hori badaki ongi libururen bat inoiz egin duenak.

Liburua kritikatu dutenek ez diote mesede handirik egin kulturari. Liburu bat beti da mesedegarri, ekarpen bat da, lan handi baten emaitza. Egilearen ekarpenaz gain, hogeita hamar urretxuarrri egindako elkarriketen mamia ere bai baitakar liburuak.

Kritika egin duzenok, non duzue bereizmena? Gauzak bereizi egin behar dira, eta ez, dena nahasi. Alde batetik beka dago, liburuaren edizioa eta kostua bestetik, eta liburuaren edukia hirugarrenik. Liburuak beti dute ikuspegi partziala eta beraz kritikagarriak dira, baina ezin dira zapuztu eta oinpean erabili, gure gustuko ideiak ez da-

kartzatelako bakarrik. Liburuan idatzitakoaren erantzule eta arduradun bakarra idazlea da. Esaten duenarekin ados gauden ala ez, hori beste kontu bat da.

Liburuari buruzko iritzia behar bezala agertu duen testu bakar bat ere ez dut ikusi argitaratuta. Irakurri ote du inork liburua? Irakurtzen ez den liburua da dene-tan garestiena. Hartan dirua gastatu eta irakurri ez. Kritika gupidagabea egin du-zuenoi galdetzen dizuet: Zergatik ez duzue idazten beste liburu bat "Urretxuko gure balioak" izenekoa? Gustura irakurriko dugu. Hor ikusiko dugu zuen ekarpena zein den. Bi liburuak osagarri izango dira eta hirugarren bat idazten bada ere berdin.

Lan hori egiteko prest zaudete? Noizko? Udalak argitara dezala hori ere, eta horretan dirua gastatu.

Etsigarria iruditzen zait alderdikeria hutsagatik eta beharbada hauteskunde batzuk gertu direlako edo postu gorena harrapatu nahiagatik liburuak, kultura eta kultur-gileak horrela hankapean erabiltzea. Kultur-jarduteko gogo guztia kentzen duzue. Zuen asmoa hori bada, jendeari gogo kentzea, helburua lortzen ari zarete, zaudete lasai eta pozik. Gainera, oso erraza da inorengatik gaizki esaka aritzea.

Une batetik bestera bihur gaitezke denok lapur, ustel, pederasta, bortxatzaile, hiltzaile eta trafikante. Zuek ere bai.

Besterik ikusten ez dudana bitartean, Urretxuko balioak hauek dira nire iritziz: gezurra eta ezinikusia. Eta ez besterik! Zorionez ni martetarra naiz, han erroldatuta nago, bai, Marte planetan, eta han bizi naiz gus-tura. Handik mundua oso txikia ikusten da. Ah, ez ahaztu, irakurri liburua! Eta neurtu zuen hitzak!

«Lurra-garia-ogia», gure ondare aberatsetik berreskuratutako beste altxor eder bat

Ogia garai batean egiten zen prozesuaren etapa guztiak biltzen dituen dokumental interesgarria grabatu eta ekoiztu du Lekaio Kultur Elkarteak, Euskal Jaiaren inguruko taldearen eta baserritarren laguntzarekin

Euskal Jai eguneko goiza nolabait edukiz betetzeko ahalegin bat bezala hasi zenak, galdutako gure ondarea berreskuratze hamaika bide eta zirriztu ireki dizkie Lekaio Kultur Elkarteari eta egun horren inguruan sortu den eta zabaltzen ari den taldeari. Sagarra, artilea, eztia eta beste hainbat gairen inguruan prestatutako egitarau oparoen ostean, garia ardatz hartuta, berreskuratze-lan horretan aurrerapauso galanta eman dute aurten garia eta ogiaren inguruan egindako lanarekin. Hori izango da aurtengo Euskal Jai-eguneko goizean landuko den gaia, baina hori urte guztian zehar egindako lan bikainaren erakusleihoa baino ez da izango.

Izan ere, taldearen dinamika animoso eta inplikatuari esker, orain arte egun edo goiz baterako egitasmoa zena, urte osoko prozesua bilakatu da aurten, eta lan hori guztia bilduko duen dokumentala ekoiztu dute Urretxun bertan, herriko baserritarren laguntzarekin. Iazko festak bukatu eta berehala egindako

lehen bileran ideia landu eta gero, garia ereitetik ogia egiterainoko prozesu guztia garatu dute, pauso guztiak bildu dituen dokumentala osatuz.

50 urte inguru izango dira hemengo so-roetan garia ereiteari utzi zitzaiola eta halakorik sekula ikusi ez dutenek ikasteko aukera bikaina izango dute, hilaren 14an - 19.30etan Udaletxeko harrera aretoan- egingo den dokumentalaren aurkezpenean edota Euskal Jai-egunean Gernikako Arbola plazan jarriko diren postu eta erakusketan -dokumentala ere ikusgai izango da hilaren 23ko ekitaldien artean-.

Ikus-entzunezko lan horretan, garai batean bezala, Urretxun egindako ogiaren prozesua erakusten da. Ibilbidea Mendi-zabaleko sail batean garia ereinez has ten da eta bertako labeen egositako ogiarekin amaitu. Horretaz gain, tarteko pauso guztiak biltzen dira: lurra laiaz landu, goldearekin lurra irauli, alperra pasatu, jorratu, garia jaso... Gainera,

errealismoa erabatekoa izan dadin, filmaziorako bildutako lagunek garai bateko janzkerak jantzi zituzten eta garia Gabiriako Igeribar Errota baserri eta ur-errotan ehotzeko aukera ere izan zuten, bertako Jose Cruz Bastarrika errotariaren azalpen mamitsuak bilduz gainera.

Lanak ikastetxeetan edo euskaltegietan izan dezakeen helburu pedagogikoaz haratago, prozesu osoa etengabeko ikasketa-prozesu bat izan da. Pentsa, Lekaioko partaideek azaldu zuten, laiketean hasi zirenak sekula halako lanetan aritu gabeak ziren eta zaharrenean esperientziatik ikasi behar izan zuten. Goldea pasatzeko erabili ziren Ipeñarrieta idiek ere ikasi egin behar izan zuten, lan horretan ohitu gabeak baitziren. Gogoratu beharra dago garai batean lan hori idiak eta behiak erabiliz egiten zela, baina gaur egunekoak ez daude lurra lantzerako ohituta.

Dokumentalaren gidioa egin ahal izateko Fermin Lasa eta Juana M^a Zinkunegirekin, Etxaburuko Felipe Areizagarekin eta Tomas Urbegainekin, Erratzuko Maria Jesus Arrietarekin eta Beaingo Miren Zabaletarekin grabatutako elkarriketak erabili dira.

Arazoak arazo, ia 45 laguneko taldearen borondate eta ilusioari esker, %100ean euren eskuekin egindako ogia jan ahal izan zuten Mendizabal bertan.

Lanabesen erakustaldia

Baina ondarearen berreskuratze-prozesu zabal horrek beste hamaika bide eta erronka zabaldu dizkie Lekaioko ki-deei. Izan ere, lanbide edo ohitura zaharrez gain, beste hainbat altxor aurkitu dute: hizkuntza-mailakoa, bata, eta lanabes edo tresnen-bilketa bestea. Eurek



diotenez, gainera, ondoren etor litezkeen beste lan batzuen hasiera-puntua izan liteke honakoa . Gauzak horrela, azken urteetan dezente izan dira baserrietan aurkitu eta berritu dituzten tresnak eta erremintak. Hala, Euskal Jai-egunean, konpondu dituzten 15 bat tresna -denak lurra lantzeko erabilitakoak- erakutsiko dituzte Lizeo-inguruko belardietan.

Jakina da museoak krisian daudela -ateak ixten azkena Artziniegako interpretazio-zentro etnologikoa izan dabaina garai bateko lanabes eta ohiturak jaso eta biltzeko beharra premiazkoa da. Izan ere, garai bateko baserrietako bizimodua ezagutu zuten azken belaunaldiak dira oraintxe gure artean ditugunak eta eten bat gertatzeko arriskua nabarrena da. Gainera, gaur egun nekazaritzatik bizi nahi duenak baserria eraldatu behar izan du, mekanizaziora edo espezializaziora joz eta horrek lehengo ohi-

tura, lan-sistema eta tresnak baztertzea ekarri du ezinbestean.

Makina eta tresna horietariko askok sutan bukatu du edota, kasurik onenean, nekazal turismoren batean apaingarri gisa. Horren aurrean, Lekaiokoe «ez-museoaren» kontzeptuaren alde egiten dute. Hau da, eraikinik behar ez duen proiektuarena, gidarik gabea, baina baserritarrak eta kaletarrak elkartuko dituen, zientziarako bidea ireki dezakeena, eta inguru hauetan horren beharrezkoak diren euskaraz hitz egiteko guneak ahalbideratzen dituen. Hitz gutxitan esateko, herrigintzan sakontzeko aukerak. Hori dela eta, antzerako gailuak zokoratuta dituzten baserritarrei deia egin nahi diete tresna horiek guztiak gordetzeko: ez ditzatela bota edo erre, baldin eta traban badiutuzte, euren gana jotzeko eskaera egin nahi diete, gustura jasoko baitituzte.



Angel Errazu

Berrogei urte pasata

Berrogei urte beteko dira aurten Urretxuko Santa Anastasia jaietan «Koadrila arteko sokatira lehiaketa» lehendabizikoz antolatu zela

Gogoratzen naiz garai hartan nola izaten zen: goizeko bederatzietan plazan biltzen ziren taldeak eta plaza garbitu eta hesitu egiten zen, nahiz eta lan honetarako talde guztiak elkartzen ez ziren. Honen ondoren, hamarretan taldeen pisatzea egiten zen eta hamabietan lehia hasten zen.

Zortzi/hamar talde izaten ziren lehiatzeko. Goizeko ekitaldian kanporaketak egiten ziren, arratsalderako lau talde gelditzen ziren, finalak jokatzeko.

Ahal zuenak taldearekin bazkaltzen zuen baina ez zen izaten, orain bezala, Udalak

antolatutako bazkaria. Bazkal orduan, alkohola neurrian hartu behar zuten gero sokatiran egin behar zutenek. Beste taldeetako kideek, ordea, libre zuten trago batzuk gehiago jotzeko.

Bazkal ondoren arratsaldeko bostak aldera izaten zen azken saioa. Hemen bakoitzak zituen indar guztiak jartzen zituen sokari helduta, bere aldera tiratzen, aurrekoari hortzak erakutsiz.

Koadrilen eguna izaki, koadrilek eurek antolatzea izango litzateke bidezkoena. Hala, beraiek nahi dituzten jolas edo kirolak aukeratu ahal izango litzukete,



nahi duten erara. Baina badirudi oso eroso dela beste batzuek egindako lanaz baliatzea eta gaizki ateratzen bada hura kritikatzeari.

Urteak pasa ahala, koadrilen artekoa galtzeraino erori zen. Orduan, duela urte dezente, Jai Batzordekoek proposatu ziguten ekintza hau Herri Kirol elkarteak berriro antolatzea eta kontrolatzea. Horrela hasi ginen, eta lan honetan saiatzen gara.

Era askotako kirol eta jolasak antolatu izan ditugu. Baina azken urteetan sokatira izan da lehiatu beharreko kirola. Gure iritzian nahiko ondo funtzionatu duela esango genuke, eta horrela jarraitzea pentsatzen dugu.

Emakumearen parte-hartzea errazago eta berdina izatearren, aurtengo jaietan taldeak pisu batean sartuta aritzea pentsatu dugu. Ondorengo araudi honen barruan:

- **Zumarraga eta Urretxuko taldeek parte hartu dezakete.**
- **Mutilak, edo neskak, bakarrik osatua izan daitezke taldea, edota mistoa.**
- **Taldea osatzeko tiratzaileen kopurua librea izango da.**
- **Talde bakoitzak botileroa izendatu behar du. Eta hau izango da taldearen arduraduna.**
- **510 kilo baino gehiago ezingo du pisatu taldeak.**
- **Taldean pisatzea eguerdiko 12,30etan egingo da frontoian .**
- **13.30tarako pisura agertzen ez diren taldeak txapelketatik kanpo geratuko dira.**





Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa
Urretxuko txalaparta taldea

V. TXALAPARTA EGUNA

2012 urtea, urte olimpikoa eta txalaparta egunaren urtea ere izango da. Badira 16 urte ekitaldi hau lehenengoz herrian egin zenetik eta dagoeneko errotuta dagoen ekimena da. 4 urtez behin ospatzeko erabakia hartu zen eta hala egin da hutsik egin gabe hasiera hartatik

Txalaparta duela 30 urte pasa berreskuratu zen Urretxurako Mendiaraz anaien interesari esker. Ondoren herritarren artean zabalduz joan zen eta Zuhaitzaren Soinua Kolektiboak hartu zuen tresna honen erabilera sendoen. Urtetan egingadako lanaren adibide bat besterik ez da Txalaparta eguna gaur egun.

Txalaparta eguna irailaren 15ean izango bada ere, aurreko egunetan, eta giroa berotze aldera, bi emanaldi ere egongo dira kaleetan. Txalaparta kalera atera nahi dugu eta herriari erakutsi zenbat gauza ezberdin egin daitezkeen oinarri antzekoa izanik.

Prestaturiko egitaraua ondorengoa da:

Irailaren 13an Barrunbadau taldeak joko du Potros plazan iluntzeko 19:30ean. Talde hau Urola Garaiko jendez osatuta dago eta hau izango dute lehen plaza herritarren aurrean. Zuhaitzaren Soinua Kolektiboko txalapartariak izango dira oholtzan eta gainontzean talde egitura arrunta dute, gitarra, baxu eta teklatuarekin.

Irailaren 14ean Adabegi taldea izango dugu Potros plazan iluntzeko 19:30ean. 10 laguneko taldea da eta Zestoan dute beraien bilgunea. Erritmo bizi, afrikar eta dantzagarriak dituzte ezaugarri nagusiztat.

Irailaren 15ean eguna bete-betea etorriko da. Goizean dianak egingo dira inguruko mendi magaletan eta ondoren herrira jaitsi eta kalejira bat egingo dugu txalaparta eta batukada bateratuta. Eguerdiko 12:00etan Umeentzako txalaparta tailerra egingo dugu Potrosen. Jolasak egingo dira hurrekin, txalaparta joaz jolasteko aukera emango da eta birtartean irudi bat marraztuko duen lagun bat egongo da plazan bertan. Arratsaldeko 18:00etan Txotx! Sagardo kupela irekiko da, txistorra pintxoak emango zaizkie bertaratzen direnei eta txalapartari ekiteko aukera emango zaio edonori. Jende ugari pasa da urte hauetan antolatatu diren ikastaroetatik eta guztiei esan nahi diegu etortzeko eta txalaparta jotzeko. 19:00etan berriz, Sestaoko Amazur taldeak emanaldia eskainiko du. Kanta ezberdinak dituzte eta tradizional estilotik hasita sanba estiloraino salto egiten dute.

Gaueko 22:30ean Gernikako Arbola plazan Txalaparta jaialdia hasiko da. Jaialdia Mendiaraz anaiek irekiko dute eta ondoren txoko desberdinetatik etorritako hainbat talde gonbidatu izango ditugu.

Gipuzkoatik datorren **Hamaika Hots** proiektu berria. Laukote honek 2 txalaparta nahastu eta joku berriak erakutsi nahi dizkigu. Aspalditik dabilta mundu honetan baina izen honekin lehen plaza izango dute.

Hernaniko Txalaparta eskola. Hernaniko irakaslea den Juan Mari Beltranek lideratzen duen taldea. Erritmo joku ezberdinen erakustaldia izango da hauena eta Ttakun Ttan Ttakun ikuskizunaren pasarte desberdinak egiteko asmoa dute.

Zukut taldea. Perkusioaren mundutik datorren lagun pare. Kepa Junkerarekin ibili dira aspaldian eta zerbait berria erakusteko gogoz etorriko dira. Urte dezente daramate elkarrekin baina Zukut izenarekin lehen aldia izango da Urretxuko saio hau.

Hutsun taldea. Nafarroatik bueltan sasoi betean dagoen taldea da hau. Txalapartari tinbre berriak eta joku bereziak egiteko gaitasuna dute eta aspaldian asko jotzen dabilta. Tradiziotik ekin eta azken boladako erritmoetarako saltoan datza beraien ikuskizuna.

Zuhaitzaren Soinua Kolektiboa. Etxekoak izanagatik ikuskizun polita eskaintzeko gogoan duen taldea. Aurtengoan bikote batek landutako lana erakutsiko dute.

Guztien gidari Andoni Salamero izango da, olerkiez eta gauaren magia talde guztiak lotuko dituelarik.

Honekin guztiarekin agur esango diogu txalaparta egunari baina txalaparta herriko festetan ere egongo da presente.

Egitarau honen antolatzaileek ondorengo adierazi nahi dugu: Ekitaldi guztiak mimos antolatu ditugula eta guztiaren sari ederrena, jendeak emanaldietan erantzutea litzakeela. Parte hartuz gero, ondo pasatu eta asko ikasiko dugu.

Beraz, gonbitea luzatuta dago.

Ttakun bero bat guztioi!



ALDIRI KIROLDEGIA 2012

Kirol Ikastaroak 2012 // Cursos Deportivos 2012

4. HIRUHILABETEA // 4º. Trimestre: Irailak 17 - Abenduak 21 // 17 Setiembre - 21 de Diciembre

JARDUERA Actividad	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	ORDUTEGIA Horario	KOSTEA // Precio		
	Lunes	Martes	Miercoles	Jueves	Viernes		ABONADO	NO ABONADO	
	ERRITMIKA GIM.		X		X		17:00 – 18:00	45.00 €	75.00 €
			X		X		18:00 – 19:00	45.00 €	75.00 €
			X		X		19:00 – 20:00	45.00 €	75.00 €
	PILATES	X		X			8:00-9:00	108.00 €	138.00 €
		X		X		X	9.00 – 10.00	108.00 €	138.00 €
		X		X		X	10.00 – 11.00	108.00 €	138.00 €
			X		X		15.00 – 16.00	78.00 €	108.00 €
		X		X		X	18.00 – 19.00	108.00 €	138.00 €
			X		X		17.00 – 18.00	78.00 €	108.00 €
			X		X		18.00 – 19.00	78.00 €	108.00 €
		X		X		X	19.00 – 20.00	78.00 €	108.00 €
			X		X		19.00 – 20.00	78.00 €	108.00 €
	YOGA		X		X		9.00 – 10.30	93.00 €	114.00 €
			X		X		10.30 – 12.00	93.00 €	114.00 €
			X		X		19.00 – 20.30	93.00 €	114.00 €
			X		X		20.30 – 22.00	93.00 €	114.00 €
	QI GONG		X		X		15:00-16:00	78.00 €	108.00 €
	AEROGAZTE	X		X		X	17:00-18:00	93.00 €	114.00 €
	AEROBIC	X		X		X	19.00 – 20.00	93.00 €	114.00 €
	GIM.MANTENIMIENTO	X		X		X	9.00 – 10.00	57.00 €	87.00 €
		X		X		X	10.00 – 11.00	57.00 €	87.00 €
		X		X		X	18.00 – 19.00	57.00 €	87.00 €
	3.ADINEKO GIM GIM 3ª EDAD		X		X		11:00-12:00	45.00 €	60.00 €
	CICLOINDOR		X		X		17.00 – 18.00	93.00 €	114.00 €
			X		X		9.00 – 10.00	93.00 €	114.00 €
		X		X			15.15 – 16.00	78.00 €	93.00 €
			X		X		15.00 – 16.00	93.00 €	114.00 €
			X		X		18.00 – 19.00	93.00 €	114.00 €
			X		X		19.00 – 20.00	93.00 €	114.00 €
			X		X		20.00 – 21.00	93.00 €	114.00 €
	X		X		21.00 – 21.45	78.00 €	93.00 €		
	CICLO+POWER	X		X			20:00-21:30	108.00 €	138.00 €
	POWER + GAP		X		X		20:00-21:00	93.00 €	108.00 €
			X		X		21:00-21:45	78.00 €	93.00 €
	TRX		X		X		18:00-19:00	78.00 €	93.00 €
		X		X		X	8.00 – 9:00	108.00 €	138.00 €
	MUSCULACION	X	X	X	X	X	MUSCULACION		26.00 €/Mes
							TABLAS MUSC.	10.00 €	10.00 €

Informazioa eta izen emateak/ Información e inscripciones : Tf. 943 038092

Ikastaro-ordutegi berria / Curso-Horario nuevo